



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO ABENDUAREN 23AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**

**Miren Itziar Arratibel Imaz**

Arkaitz Fraile Quijera

Etorri diren zinegotziak:

Victoria Rodriguez Feloaga

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko abenduaren 23an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2016KO AZAROAREN 11KO AKTAREN ONARPENA**

2016ko azaroaren 11an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2016ko azaroaren 11an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2016KO AZAROAREN 21EAN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

#### **2.1 LIZTOR BELTZA. HABIA SUNTSITZEKO JANTZIA**

Ibarrako Udalak 2012 geroztik jarduten du liztor beltzaren habiak suntsitzen, 2012ko uztailaren 2an indarrean zegoen alkateak eta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak Fraisoro Eskolan ikastaroa egin ostean.

2014 geroztik, GFAREN protokoloaren arabera, udalek dute liztor beltzaren habiak suntsitzeko ardura.

Ibarrako Udalaren kasuan hiru kide aritzen dira habi mota hauek suntsitzen: Asier Armendariz, Xabier Pikabea eta Xanti Mendigain.

Kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzordeak 2016ko otsailaren 26an egindako bilera onartu zuela liztor beltzaren habiak suntsitzeko Protec Solanaren jantzi bat erostea, 499,95 euroko zenbatekoagatik, Udalak gaia bere kabuz kudeatu zedin.

Kontuan hartuta liztor beltzaren habiak suntsitzeko aldiro bi lagun gerturatu ohi direla, egokiena kide bakoitzak jantzi bat edukitzea izanik.

Kontuan hartuta, beraz, erreferentzi den jantzi horietako bat erosteko Protec Solanaren aurrekontua 499,95 eurokoa dela.

Kontuan hartuta Ibarrako Udalak zenbateko hori 1.0000.623.172.00.01 2016 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2016ko azaroaren 21ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## **ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENA: Protec Solanaren aurrekontuak onartzea, guztira 499,95 euroko zenbatekoagatik (BEZ barne).

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko horiek 1.0000.623.172.00.01 2016 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen direnean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman kontuhartzaitzari.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Protec Solanari.

## **2.2 EDALONTZI BERRERABILGARRIAK. FIDANTZA**

Kontuan hartuta Ibarako Udalak 5.100 edalontzi eta 3.600 plater berrerabilgarri erosi zituela 2013ko uztailaren 12an, herrian antolatzen diren ekintzetan hondakinen sorrera murrizte aldera.

Kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko azaroaren 21ean honoko baldintzak onartu zituela:

- ✓ Eskatzaileak bere eskaeraren %10eko fidantza jartzea, kontuan hartuta euro baten balioa edalontzi eta plater bakoitzeko.
- ✓ Eskatzaileak fidantza edalontziak eta platerak jasotzen dituen unean jartzea.
- ✓ Eskatzaileak erabilitako edalontziak eta platerak astebete baino lehen itzultzea, hartutako kopuru eta egoera berean
- ✓ Eskatzailearen batek fidantzarik jarriko ez balu, Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza batzordeak izango luke kasua aztertzeke eta neurriak hartzeke ardura

Kontuan hartuta herrian antolatzen diren hainbat ekintza Udalaren laguntzarekin antolatzen direla, hala nola: Izaskungo festak, San Inazio festak, San Bartolome festak, Iraileko Azoka, Azkue auzoko festak eta Xexili Eguna.

Kontuan hartuta, halaber, Galtzako kale hezitzaileen edozein ekimen edota Udalaren laguntzarekin antolatzen direnak ere fidantzatik at geratuko liritekeela.

2016ko azaroaren 21ean buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## **ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BAKARRA:** Goian aipatzen diren ekintzak antolatzen dituzten taldeei fidantzarik ez jarriaraztea edalontzi berrerabilgarrien eskaera egiten dutenean.

## **HIRUGARRENA:**

### **3.1 2016KO ABENDUAREN 16AN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

Azaroaren 10ean sinatu zen kontratuaren 5.a.a atalean agertzen diren jarraibideen arabera

- 
- **Orduetgia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 22:00  
Ostirala, larunbata, igande eta jaiegunetan: 10:00-23:00  
Astearteak, asteko jai eguna.
  - **Gela erreserba:** Eskaerak beti Bizi Nahi elkarteko juntakoek jasoko dituzte, eta hauek tabernako esleipendunari eta Ibarra Udalarari adieraziko dizkiete, gutxienez astebeteko aurrerapenarekin.
  - **Iñauteriak:** asteartean taberna irekita egongo, asteazkenean (hausterre eguna) itxita.
  - **Asteartea asteko jai eguna egokitzen denean,** esleipendunak taberna irekitzeko aukera izango du. Egun horren orde bestea batean ixteko asmoa izanez gero, Bizi Nahi elkarteko juntari eta Ibarra Udalarari adieraziko zaie.
  - **San Inazio auzoko eta San Bartolome jaietan** taberna irekita egongo dela bermatuko du esleipendunak.
  - **Oporrak:** Noiz egingo dituen, Bizi Nahi elkarteko juntari eta Ibarra Udalarari adieraziko die, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin. Gehienez hamabost egun jarraian itxita egon ahal izango du tabernak.
  - **Bingoa:** igandetan 16:30-19:30 bitartean izango da. Esleipendunak jangela libreutziko du 16:00etarako. Bizi Nahi elkarteko juntak aldaketarik egiteko asmorik izanez gero, esleipendunari eta Ibarra Udalarari adieraziko die.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Komunikazioa: Ibarako Udalarekin harremanetan jartzeko Gizarte Zerbitzuetako langileen bidez egingo da.

Jakinarazpenak, aldaketak (jai egunak, oporrak, ...) eta abar, argi eta garbi adieraziko dira Biz Nahi Jubilatuen Etxeko iragarki taulan.

- Hizkuntza: Ibarako Udalaren egiten diren idatzizko komunikazioak, euskaraz aurkeztu beharko dira. Aldiz, jubilatuei egin beharreko jakinarazpenetan bi hizkuntzak bermatuko dira, Ibarako Udalak itzulpen zerbitzua eskaintzen du egoera honetan zailtasuna izanez gero.

2016ko abenduaren 16an buruturiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea Bizi Nahi Elkarteko tabernan kudeaketa egiteko aurkeztu diren jarraibideak

BIGARRENA: Jarrai bide hauen onarpena jakinarazi Bizi Nahi Elkarteko tabernaren kudeaketa egiten dutenei eta Jubilatu elkarteari.

#### **3.2 ZUZKIZURAZKO ETXEBIZITZAK ITXARON ZERRENDIA**

Euskalerrria 18.2 zenbakian kokaturik dauden udal zuzkidurazko etxebizitzak 2016ko urtarrilean egin zen itxaron zerrenda egun agorturik dago. Bertan hutsik gelditu eta geldituko diren etxebizitzak bete behar dira.

2016ko abenduaren 16an buruturiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Euskalerrria 18.2 zenbakian kokaturik dauden udal zuzkidurazko etxebizitzak betetzeko itxaron zerrenda sortzeko izapideak hastea.

BIGARRENA: 2017ko urtarrilaren 18a, eguadiako 13:00ak arte, ezartzea interesaturik dauden gazte denak beraien eskaerak aurkezteko epea. Eskaera hauek Ibarako Udalean aurkeztu beharko dira eta Gizarte Zerbitzuetako sailak aztertuko ditu (erreglamenduan ezarritako baldintzak betetzen diren edo ez ikuskarituko dute



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

bertan).

**HIRUGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 20an egingo da itxaron zerrendaren zozketa. Zozketa burutzeko ezarriko den ordua eta lekua Ibarra Web orrialdean jakinaraziko da.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Gizarte Zerbitzu sailari, Ibarra Udaleko Web orrialdean argitaratu eta prentsan jakinarazi.

### **3.3 I.A.G.V GAZTEAK EUSKAL HERRIA 18KO ZUZKIDURAZKO ETXEBIZITZAN SORTURIKO ZORRA**

2016-10-21ean eginiko batzordean gazte honen kasua aztertu zen. Bertan hartutako erabakia helarazi zitzaion baina bere horretan segitzen du ordaintzeko arazoekin. Konkretuki, 450 euroko zorrak ditu.

- Urria: 100 €
- Azaroa: 350 €
- Abendua: Ordainduta.

2016ko abenduaren 16an buruturiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Erabaki hau jakinarazi eta hurrengo 15 eguneko epean (egun naturalak) 450eurotako zorraren ordainketa egin beharko du I.A.G.V gazteak.

**BIGARRENA:** Ordainketa epean egiten ez den kasuan, kontratua bertan behera utzi eta etxe bizitzatik kanporatzeko prozedura martxan jarriko du Ibarra Udalak

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri eman I.A.G.V gazteari eta Gizarte Zerbitzu sailari



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

#### **4.- GALDE ERREGUAK**

##### **4.1 2016KO ABENDUAREN 12AN EUSKALERRIA 18-2KO 3G BIZITOKIA UZTEKO ESKARIA**

2013ko abuztuaren 1ean Euskal Herria kaleko 18-2ko 3 G zuzkidura bizitokiaren eta hari erantsitako 17 zenbakidun trasteroaren errenta kontratua sinatu zen Ibarako Udalarekin.

2016ko abenduaren 12ko datarekin kontratua bertan behera uzteko eskaria aurkeztu du maizterrak. Bertan, 2016ko abenduaren azken egunean bizitokia utzi nahi duela agertzen du.

2016ko abenduaren 15ean udal arkitektoak bizitokia ikuskatu ondoren txostena egin du. Ikuskaritzan ezin izan da 17.trasteroaren egoera ikusi eta etxebizitzari dagokionez araudiaren arabera baimendu behar ziren (eta baimendu ez diren) obra txiki batzuk egin direla ondorioztatu da.

Gizarte zerbitzuko buruaren proposamena kontutan izanik eta Udal Arkitektoaren txostena aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzorde honek aho-batez harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA:** 1ean Euskal Herria kaleko 18-2ko 3 G zuzkidura bizitokiaren eta hari erantsitako 17 zenbakidun trasteroaren maizterraren eskaera onartzea baina 2013ko abuztuaren 1ean sinaturiko kontratuaren 5. Puntuaren arabera (bizitokiaren errenta kontratua uzteko erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean amaituko da errenta kontratua) 2017ko urtarrilaren 12an amaitzen da.

**BIGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 12rako honako zuzenketak egin beharko ditu:

1. Dutxan jarritako manpara fijoak eta egindako eskaloia kendu beharko dira eta kontratu haseran zegoen egoerara itzuli beharko da. Jarritako zeramikak kendu beharko dira eta zeramika azpia ongi garbitu. Manpara kentzerakoan egin diren zuloak tapatu eta dutxa ohiala jartzeko barra berrezarri beharko da.
2. Ateraren markoak, janbak, jasotako hezetasunen ondorioz aldatzea eskatzen da (hezetasun hau sortu da manpara fijoak soilik dutxa erdian dagoenez hezetasuna sortu da)
3. Bizitokian gazteak ekarritako altzari guztiak bizitokitik atera beharko dira
4. Telebistaren altzaria jartzerakoan argi indar interruptoreak lekuz aldatu ziren eta berriz ere zeuden lekuan jartzea eskatzen da.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**HIRUGARRENA:** baina 2013ko abuztuaren 1ean sinaturiko kontratuaren 11. Puntuaren arabera kontratuaren betebeharrak 2017ko urtarrilaren 12rarte mantenduko dira.

**LAUGARRENA:** Etxebizitzaren bigarren ikuskaritzarako; bizitoki guztia garbitu beharko da eta hutsik utzi beharko da. Altzariak kentzerakoan, bizitokiaren pinturaren egoera ere kontutan izango da eta bigarren ikuskaritza honetan 17.trasteroaren ikuskaritza egingo da.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri eman Euskal Herria 18-2ko 3-G zuzkidura bizitokiaren maizterrari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeita bost direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.